

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 20a / 573. zenbakia


MOZORROEN JAI HELDU DA



ARATUSTEAK!

ASTEKO: ZUHAITZ EGUNA ZAPATUAN/6 • ANTZERKIA: OIHULARIREN ESTREINALDIA HILAREN 27AN/12

AZALA: MAITENA ARANA - ILLUSTRAZIOAREN EGILEA: JULEN LEIBAR / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARTXIBOA



**gelatzu s.l.**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15 51



San Juan 1 A.  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

# UGARTE

## AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze iritzi daukazu Bergarako Aratustien gaiñian?



**VICTORIA ARANBURU**  
69 urte

Lehen baino hobiak. Lehen martitzeniak bakarrik izaten zien, eta oiñ, berriz, zapatuan danek dauke aprobetxatzeko aukeria. Ni lehen disfrazatzen nintzan, baina oiñ ez.



**HECTOR RAMUDO**  
41 urte

Giro ona egoten da. Oiñ ez naiz disfrazatzen, baina gustoko ditud Karnabalak. Oiñ dala urte asko Tolosan egon nintzan hango jaixa ezagutzen, baina oiñ Bergarakuetan geratzen naiz.



**MIRARI LAZKANO**  
40 urte

Gauza askorik ez da egoten, baina ambiente polita bai. Ni neu lehen disfrazatzen nintzan, eta inoiz baita Donostiara juan be. Baina oiñ seme-alabak bakarrik jantzen die.



**JOSEBA LABAKA**  
42 urte

Egon die urtiak ambiente haundixaua egon dana, baina azkenaldixan irabazi egin dabe. Kanpora be jun izan naiz Karnabaletan, Donostiara eta Eibarrera, baina oiñ umiekin bertan.



**ISABEL SIERRA**  
41 urte

Asko motelduta dare aspaldixan. Hemen geratzen ga eta oin dala gutxira arte denda disfrazatzen giñan, baina jende gutxi ibiltzen zan jantziata, eta oiñ umiak gertatzen ditudugu.



**BENJA ARREGI**  
37 urte

Bergaran lan egiten doten arren Tolosarra naiz. Hemengo Inauteriak onak diela entzun dot, baina guriekin uste dot ezin diela konparau. Hala be, jai txarrik ez dago iñun.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXIISTUAK BARRENKALEKO SEMAFOROA** Irakurle batek deitu zigun astelehenean, haserre, zapatu eta domeketan Masterrekako semaforoa luzaroan gorri egoten delako. Domekan bi aldiz pasatu zela handik eta bietan dezente itxoitea egokitu zitzaioala esan zigun. Semaforoaren ondoren dagoen stop seinalea errespetatzearekin nahikoa ez ote den galdetu nahi die irakurleak udaltzainei. /E.M.

## ETABARRUAN...

ASTEKO /5

**Urteaga 19 eta 21eko etxeak**

Urteagan botatze- ar dauden Urteaga 19 eta 21eko maizterrei ostatu bilatzeko erabakia.

KIROLA /11

**Bergara-Sestao**

Senior mailako mutilen eskubaloi taldeak Sestao hartuko du zapatuan kiroldegian.

KULTURA /12

**Literatur lehiaketa**

Udaleko Euskara Zerbitzuak Koldo Eleizalde Literatur Lehiaketako oinarriak kalera-tu ditu.

## ASTEKODATUA

# 15

**POSTU BIHARKO ZUHAITZ EGUNEKO AZOKAN**

Bihar, zapatua, Zuhaitz Egune-ko ospakizunen barruan, goizean zehar azoka izango da San Martin plazan. Baso lanerako tresneriaren eta zuhaitzen 15 bat postu jarriko dituzte.

## BESTEKEKESANA

“

**Klubak bi denboraldi-tarako berritu dit kontratua eta gero gainera beste hirugarren baten**

**aukera ere hor dago. Nire adina kontuan hartuta, kirol ibilbidea Realean amaituko dudala esan dezaket, nire kirol ibilbidea hasi nuen talde berean”**  
**AGUSTIN ARANZABAL /**  
Realeko jokalaria  
**Berria/04-02-13**

“

**Antzerki munduan oso erraza da kapitulu bat itxi eta ondorengo- goa hastea, hasieren eta bukaeren mugak**

**argiak direlako, baina bizitzan, aldiz, zaila eta konplikatu da. Nik egia esan, ez ditut kapituluak disfrutatzen.”**  
**MIREIA GABILONDO /**  
Antzelea  
**Gara/04-02-15**

## BERAIEKDIÑOÈ/ Mikel Elkoroberezibar



*Bergarako autobusa*

**D**onostiatik irten eta Cadizera joan ziren duela egun gutxi Savater eta Calleja euren koadrilarekin denon diruekin ordaindutako autobusean 1812an Cadizen onartutako konstituzioa aldarrikatzeko.

Orduan bezala, gaur egungo konstituzio espainola iparraldeko tribu barbaroengatik arriskuan ikusten omen dute “intelektual” espainolek. Ez dakit nik ze maila intelektual duten hauek.

DBHko liburuek eta historiak diotenez Cadizeko konstituzioa Fernando VII.a errege Borboiak indarrez ezabatu eta absolutismoarekin batera inkisizioa ezarri zuen Espainian.

Baina hauei bost axola zaie, eta egiten dituztenak eginda ere dena onartzen zaie eta ez Madrilen bakarrik.

Hemen ere tripetako mina ematen du Orreagan Printze Borboiaren eta Fragaren ondoan Ibarretxe Lehendakaria

giza eskubideez eta demokraziaz hitz egiten ikusteak Monseñor Sebastianen bedein-kazioarekin.

Euskal demokrata guztiek txalotzen dute Carod Rovirak egindakoa, batzuei bakarrik eskolako nerabeen moduan karpetan Roviraren posterra pegatzea falta zaie.

**“Euskal demokrata guztiek txalotzen dute Carod Rovirak egindakoa”**

Etxean, berriz, Borboiek bultzatutako konstituzioak legez kanpo jarritakoekin akordioak egin behar direnean beste alde batera begiratu eta botoen zakua ondo zabal-tzen dute zenbat poltrona irabaziko

zain.

Horren aurrean badira Euskal Herrian Borboien konstituzio eta poltronetatik paso egin eta Bergaratik irtenda autodeterminaziorako autobusa martxan jarri dute-nak.

Autobusa xumea izango da baina behintzat martxan dago eta euskal herritar edonoren-tzat ateak zabalik edukitzeaz gain, Borboien konstituzioak ez ditu geltokiak zehaztuko.

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 20**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 21**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- DOMEKA, 22**  
MOZOS, Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 23**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 24**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 25**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- EGUENA, 26**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kirolegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaletgia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegaraieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:30.<br><b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 11:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Santa Marina</b><br>Domekak:<br>11:00, 13:00.<br>Zapatuak:<br>19:00.            | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>09:00, 11:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.<br><b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.<br><b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.<br>Domekak: 12:00.   |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   |   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.                              |   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.  |   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  |   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |   |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |   |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

**OHARRAK**

**1978AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 13AN**  
1978an jaiotako bergararren bazkaria martxoaren 13an Txarrantxa jatetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1900 9007 0394), otsailaren 28ra arte. Bazkari egunean 12:00etan elkartuko dira Pol-Polen.

**ESKI IRTEERA BAQUEIRARA OTSAILAREN 27AN**  
Pol-Pol Mendizale Taldeak otsailaren 27tik 29ra Baqueirara eski irteera egingo du. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era, edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

**SAGARPE ELKARTEAREN BATZARRA MARTXOAREN 5EAN**  
Sagarpe elkartearen urteko batzarra izango da martxoaren 5ean, 19:00etan. Ondoren, 21:30ean, bazkideek afaria egingo dute. Izenematea elkartean bertan.

**ERRETIRATUEN IRTEERA LOGROÑORA HILAREN 27AN**  
San Joxepe elkarteak otsailaren 27an Logroñora joateko irteera antolatu du. Irteera 08:30ean izango da eta bisitaldi gidatua egingo dute: Logroñoko katedrala eta alde zaharra ikusiko dituzte. Horren ondoren, Biasteriko jatetxe baten bazkalduko dute eta arratsaldean Haro bisitatu dute. Iluntzean itzuliko dira Bergarara. Izenematea (25 euro) erretiratuen egoitzan egin daiteke.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTE BUKAERAKO AGENDA**  
Txapligu taldekoek mozerro desfilea egingo dute bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, sukaldaritza ikastaroa izango dute, torradak prestatzen ikasteko.

**URBANOENORDUTEGIA**

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Arantzabalen bigarren partidua Realarekin**

Egunotan Realarekin kontratua berritu duen Agustin Arantzabal bergararrak bigarren partidua jokatu zuen lehen mailan orain dela 10 urte, 1994ko otsailaren 20an. Realak 0-1 galdu zuen Anotan Deporren aurka. Arantzabalek justu urtebete lehenago egin zuen debuta, Coruñan, 1993an.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Ipurzuloko"*



Ipurdian ostikoa. Emuten bostat ipurtzuloko bat...

GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguena, 12	<b>-2 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguaztena, 11	<b>20 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>7,7 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	20 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 12	17 °C	-2 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 13	16 °C	3 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 14	16 °C	1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 15	12 °C	4 °C	1,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 16	8 °C	5 °C	6,4 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 17	11 °C	5 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOPELIKULAK**

**'SER Y TENER'**

ZUZENDARIA: NICHOLAS PHILIBERT.

**HARIA.** Nicolas Philibert zinema-gile frantziarrak sei hilabete eman zituen Saint-Etienne Sur Usson herrixkan, hango eskola txikian diharduten adin askotarikoko umeen eta irakaslearen gorabeherak jasotzen. Jatorrizko bertsioan, azpituak gaztelaniaz.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenetan, 19:30ean (ik. eguna).

PUNUAZIOA: ●●●●●



PUNUAZIOA: ●●●●●

**'GOOD BYE, LENIN'**

ZUZENDARIA: WOLFGANG BECKER. AKTO-REAK: DANIEL BRUHL, KATHRIN SASS, MARIA SIMON.

**HARIA.** Ekialdeko Alemanian egoera politikoa erabat aldatu zen 1989an, Berlingo Harresia bota zutenean. Gizartean aldaketak gertatzen diren bitartean, Alexen ama ospitalean dago. Esmatzean, seme-alabak oraindik sistema sozialista indarrean dagoela azaltzen ahaleginduko dira amari...

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hilaren 26an, 20:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

**JAIK/** Bedelkar herriko dendarien elkarteak 200 euroko afari merienda emango dio ondoen mozorrotutako koadrilari

# Pailazo emanaldiak aste bukaeran eta doinu brasildarrak Aratuste-martitzenean

EDU MENDIBIL

Mozorroak protagonista izango ditugu egunotan Bergaran. Gaur hasi eta martitzenera bitartean Aratusteetan murgiltzeko ospakizunak izango dira. Besteak beste, pailazoak eta Rio Samba Show talde brasildarra izango dira giroa alaitzen.

Haurrendako bi pailazo emanaldi iragarri ditu Udalak: Bolintze Zalaparta eta Loretsu Traketsu pailazoaren *Zirika Zirkus* bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 16:30etan; eta etzi, domeka, Takolo, Pirritx eta Porrotxen *Poxpolin Marisorgin*, pilotalekuan baita ere, 18:00etan. Sarrerak salgai daude frontoiko tabernan.

Bihar, zapatua, erraldoi eta buruhandien kalejira izango da, 17:30ean San Martin plazatik hasita. Elgoibarko dultzaineroak ere etorriko dira. Ondoren, 19:00etan, Xamatzek kalejira egingo du eta gauean, Brigada Criminal eta Dragon Fly taldeek joko dute San Martin plazan, 22:30ean.

## BEDELKARREN SARIA ARATUSTEETAN

Aratuste-martitzenean ikasle gaztetxoek eta koadrilek alaituko dituzte herriko kaleak. Musika Eskolako txarangaren kalejira egongo da 17:00etan eta ondoren, 18:00etan, Rio Samba Show brasildarren txanda izango da: kalejiraren ostean, dantza ikuskizuna eskainiko dute Udal Pilotalekuan. Aratusteei amaiera emateko, sardina-ehorzketa egingo dute, San Martin plazan, 22:00ak aldera.

Bestetik, ohi duenez, Bedelkar dendarien elkarteak 200 euroko afari merienda emango dio Aratusteetan ondoen mozorrotutako taldeari.



ARTXIBOA

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren *Poxpolin Marisorgin* ikuskizuna izango da domekan Udal Pilotalekuan, 18:00etan.

## Udal Musika Banda eta Orkestra Sahararen alde, gaur

Udal Musika Bandak eta Orkestrak Inauterietako kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

Sarrerak bost eurotan jarriko dira salgai eta jasotako dirua Aljeriako basamortuan bizi diren errefuxiatu sahararrei bideratuko diete. Bergaran 3.000 euro eta lau tona elikagai inguru batu dira aurtengo sahararren aldeko kanpaina, eta Bandak eta Orkestrak ere dirulaguntza emango dute.

Gaur gaueko kontzertuko programa *western* generoari dedikatuta

dago. Kontzertuak hiru zati izango ditu. Lehenbizikoan, Udal Musika Bandak honako piezak joko ditu: *Overtura to a new age* (De Haan), *Evolutions* (Reed) eta *Aratusteetako dantzak* (herrikoia).

Jarraian, orkestrako kideek beste hiru pieza eskainiko dizkiete entzuleei: *Pennywhistle jig* (Mancini), *The shadow of your smile* (Mandel) eta *Carmen* (Bizet). Azkenik, eta western giroari eutsiz, *Far West Story* izenburuko lana eskainiko dute bandak eta orkestrak, Alfredo Gonzalez Chirla-

queren zuzendaritzapean. Bertan, hainbat konpositoreren lanak bildu dituzte (Ennio Morricone, Elmer Bernstein eta beste hainbat) eta koreografiak ere berebiziko garrantzia izango du. Inauterietako kontzertuan ohikoa denez, hainbat ezusteko izango dira kontzertuak: besteak beste, Xamatzeko kideek *country* doinuak dantzatzeko dituzte eta *saloonean* izango dira mahai-jokoak, parranda giroa, bakeroen arteko haserreak eta dueluak. *Sheriff*-ak lana izango du gaur Frontoian.

## Urteaga 19 eta 21eko maizterrei ostatu emateko erabakia

E.M.

Urteaga 19 eta 21 zenbakidun eraikinetan bizi diren hiru maizterrei ostatu emateko erabakia hartu zuen udalbatzak astelehenean, aho batez. Laster, eraikin horiek bota egingo dituzte.

Jakingo duzue, Urteaga kaleko 19 eta 21 zenbakidun eraikinak oso egora kaskarrean daude eta Udalak hondamen-aitorpena emateko erabaki zuen aurki. Bi eraikinok laster botako dituzte. Hain

zuzen ere, maizterrek astelehenera arte, hilak 23, daukate etxebizitzak libre uzteko. Beraz, lehentasunezko gaia zen maizterrei ostatu ematea.

Hori dela eta, maizterrei ostatu topatzeko erabakia hartu zuen udalbatzak astelehenean, aho batez. Victoriano Gallastegi alkateak azpimarratu zuenez, Urteaga 19 eta 21 zenbakidun eraikinek hartzen duten lursaileko hirigintza eremua garatzenean, Udalak konpentsazioa jasoko du maizterrei arazoaren irtenbidea topatzeagatik.

### URTEAGAKO ETXEBIZITZA SOZIALETAN

Urteagako babes ofizialeko etxebizitzetan bi etxebizitza libre daude eta, beraz, maizterretako biri etxebizitza alokatzeko lehentasunezko eskubidea aitortzea erabaki zuen Udalak. Era berean, amaitzean dagoen babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren fasean beste etxebizitza bat libre dago, eta hura erosteko lehentasunezko eskubidea aitortu zaio hirugarren maizterriari. Etxebizitza bukatu bitartean, Udalak San Migel kalean jabegoan duen etxe bat alokairuan emango zaio.



ARTXIBOA

Urteaga 19 eta 21eko maizterrek etxebizitzak utzi beharko dituzte astelehenerako.



ARTXIBOA

Gutzira, 15 bat salmenta postu izango dira bihar goizean San Martineko azokan.

**EKOLOGIA/** Ikasle gaztetxoek zuhaitz landaketa egingo dute eguerdi partean Pol-Polen

## Zuhaitz Eguneko azoka bihar, San Martin plazan

EDU MENDIBIL

Udaleko Ingurumen Batzordeak antolatuta, bihar, zapatua, Zuhaitz Eguna ospatuko da. Azken urteotan ohikoa denez, batetik azoka izango da San Martin plazan, 09:30ean hasita, eta bestetik zuhaitz landaketa egingo dute Pol-Polen, eguerdian.

2002ra arte Zuhaitz Astea ospatzen bazen ere, azken hiru urteotan Zuhaitz Eguna antolatu du Udaleko Ingurumen Batzordeak. Horrela, egun bakar baten batuko dira zuhaitzaren inguruko ekitaldiak.

Esan bezala, bihar, zapatua, baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta postuak izango dira San Martin plazan, 09:30etik 13:30ak bitartean. Zuhai-

tzei dagokienez, fruitu arbolak, mendiko arbolak eta etxea apaintzeko erabiltzen direnak ere izango dira ikusgai eta salgai zapatuko azokan. Besteak beste, sagarrondoak, pinuak, intxaurreondoak, haritzak, pagoak edota madariak ekarriko dituzte saltzaileek.

Josean Etxeberría zinegotziak zera adierazi digu: "Azken urteotan erantzun ona izan du azokak eta bihar ere jendea plazara hurbiltzea nahiko genuke".

*Gaztetxoek 50 haritz eta beste horrenbeste pago landatuko dituzte Keixeta inguruan*

**EGUERDIAN LANDAKETA POL-POLEN**

Bestalde, zuhaitz landaketa egingo da eguerdi partean Pol-Polen, Keixeta inguruan. Mariaren Lagundia, San Martin eta Aranzadi ikastetxeetako gaztetxoak gonbidatu dituzte landaketan parte hartzeko. Autobusak Iburgaraiko geltokitik aterako dira, 10:30ean. Santutxuraino helduko dira eta handik Pol-Polera oinez edo udalak jarritako lan-roberretan joateko aukera izango da.

Gaztetxoek udaleko teknikarien eta Mendia Bizirikoko kideen laguntza izango dute landaketa egiteko. Azken urteotan moduan, haritzak eta pagoak landatuko dituzte Pol-Polen.

Landaketan parte hartzen duten neska-mutikoei ogitartekoa, edaria eta kamiseta bana emango zaizkie.

## LABUR

### Manu Azkarate tolosar presoaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak

Manu Azkarate presoaren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean, EAJ-EA, Aralar eta PSE-EEren aldeko botoekin. Zera onartu zuten alderdiek: Azkarate lehenbailehen askatzeko exijitza espesetako zuzendaritzari, Azkarateren sendiari elkartasuna adierazte une zail honetan eta, azkenik, giza eskubideen aldeko mobilizazioetan parte hartzea.

Osasun arrazoiengatik Azkaratek baldintzapeko askatasuna lortu zuen 1993an, baina aurtengo urtarrilean berriro espesetatu zuten. Ondorioz, gose, egarri eta medikazio greban dago.

### Elkarrik datorren zapatuko sinadura bilketarako boluntarioak behar ditu

Elkarri erakundeak sinadura bilketa egingo du datorren zapatuan, hilaren 28an, Bake Konferentziaren alde. Egun horretarako sinadura bilketa deitu dute Euskal Herri osoan. Bake Konferentzia bultzatzeko 100.000 sinadura behar ditu Elkarrik.

Esan bezala, datorren zapatuan, otsailaren 28an, hainbat mahai jarriko ditu Elkarrik Bergaran, eta sinadurak batzeko boluntarioak behar dituzte. Interesatuak ondoko telefono zenbakira de dezakete: 660 40 64 76.

### Jardunek martxoaren 5ean Rezola sagardotegira joateko irteera antolatu du

Jardun euskara elkarteak martxoaren 5ean Astigarragako Rezola sagardotegira joateko irteera antolatu du. Jardunekoek Sorluzeko Pil-Pilean elkartekoekin batera egingo dute irteera. Autobusez joango dira Astigarragara eta Rezola sagardotegian afaldu ondoren itzuliko dira.

Irteeraren prezioa 29 euro da, bidaia eta afaria barne. Jarduneko bazkideendako, ikasleendako eta langabeendako, 26 euro. Izenematea Kortazarren, Pol-Polen edo Arranon.

### Espainiari ezetza emateko sinadura bilketa egingo dute zapatuan, Batasunak deituta

Bergarako Batasunak Espainiako Estatuaren inposizioaren kontrako sinadura bilketarekin jarraituko du bihar, zapatua. Nazio Batuen Erakundearen aurrean Espainia salatu nahi dute eta helburua 25.000 sinadura lortzea da.

Esan bezala, Bergaran zapatuan egingo dute sinadura bilketa, 10:00etatik 14:00etara, eta, era berean, Pol-Pol eta Arrano tabernetan izango da sinadura emateko aukera.

### Luis Mari Azkargorta 'Kanto' Martutenetik Zuerako espesetxera eraman dute

Luis Mari Azkargorta Kanto Zuerako (Zaragoza) espesetxera eraman zuten egubakoitzean, hilaren 13an.

Bergarako Amnistiaren Aldeko batzordeak salatu duenez, herriko hamar preso politikoetatik bakarra ere ez dago Euskal Herrian. Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma bultzatu nahirik, datorren egunean, hilaren 26an, bilera izango da Bergarako kultur etxean, 19:00etan.

## Torrekua-San Antonio arteko bidea moztuta

E.M.

Ur zikinen kolektorea jartzeko lanengatik, Torrekua eta San Antonio arteko errepide zatia itxi egin zuten astelehenean, hilaren 16an.

Ondorioz, gidariek hainbat aldaketa jasango dute: San Antonio eta Martoko aldetik datozen autoek Mintegi kaletik eta Arriuritik jo beharko dute saihesbidera. Era berean, Toki-Ede-

rrera, Arrizuriko aldapatik gora eta ondoren Mintegi kaletik iritsiko dira gidariak. Mintegi kalea bi noranzkoa izango da lanek irauten duten bitartean.

**APIRILERAKO, GERTU**

Sobrino enpresa ari da kolektorea jartzen. Lanak apirilaren hasierarako amaitzeko konpromisoa hartu du, apirilaren 5ean Euskal Herriko Txirindulari Itzulua Bergaran hasiko baita.



Astelehenean itxi zuten Torrekua eta San Antonio arteko errepidea.

# Herritarren partetik harrera beroa izan du 'Asteleheneko Goienkaria'k

ERREDAKZIOA

**A**stelehenean ikusi zuen argia *Asteleheneko Goienkariak*. Harrera beroa jaso du astekari berriak: aurrerantzean astelehenero eskuratu ahal izango duzue. Eguenean, hilaren 12an, aurkezpen ekitaldia izan zen Bergarako kultur etxean.

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak, Estepan Plazaola Goiena Komunikazio Zerbitzuetako presidentek eta Olatz Olaso Jarduneko presidentek hartu zuten parte aurkezpen ekitaldian. Plazaolak 1990eko abenduan BERRIGARA jaio zenetik honako ibilbidea jorratu zuen, eta *Asteleheneko Goienkariak* Goienarentzat erronka handia dakarrela esan zuen. Harpideek eta irakurleek zeresan handia izango dutela azpimarratu zuen Plazaolak. Olosok, berriz, Goiena zoriondu zuen azken urteotan euskal prentsan egindako lanagatik. Gallastegi alkateak, azkenik, esan zuen astekari berria bailara mailan sortzen den informazio guztia eskuratzeko tresna ezin hobea izan daitekeela. Guztira, 50 bat lagun elkartu ziren aurkezpenan, eta ondorengo luntxean, proiektuaren nondik norakoak jakiteko aukera izan zen, lagun artean.

## HARPIDETZA KANPAINA MARTXAN

Hemendik aurrera, astero-astero *Asteleheneko Goienkaria* etxean jasotzeko edo saltokietan erosteko aukera izango duzue. Harpide egiteko 902 79 22 93 telefono zenbakira, [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgurena edo [astelehenekoa@goiena.com](mailto:astelehenekoa@goiena.com) helbidera jo dezakezue.



Estepan Plazaola, Victoriano Gallastegi eta Olatz Olaso egueneko aurkezpenan.



Gotzon Arzelus Goienako zuzendari komertziala, Jose Mari Larrañaga, Luis Abajo eta Imanol Bolinagarekin solasean.



Maite Barrena, Javier Mendizabal, Gallastegi alkatea, Elias Lete eta Peio Garitano.



Iban Arantzabal, Mireia Larrañaga eta Sebastian Urbieta umoretsu.



Asteburuan bailaran gertatutakoaren berri emango du *Asteleheneko Goienkariak*.

## Zein deritzozu kaleratu berri den *Asteleheneko Goienkariari*?



**VIRGINIA IMAZ**  
OIHULARI KLOWNEKOA

Herri prentsak sekulako hazkundea izan du azken urteotan, eta jauzi ederra da astelehenean beste astekari bat izatea.

Egia esan, prentsa ez dut gehiegi irakurtzen, baina herri prentsari arreta berezia eskaintzen diot, azken baten gehien eragiten digun informazioa dakarrelako.



**MARTIN ETXEBERRIA**  
ARALARREKO ZINEGOTZIA

Proiektu interesgarria iruditzen zait, euskarazko prentsan zegoen hutsune bat betetzera datorrelako *Asteleheneko Goienkaria*.

Asteburuetan gauza asko izaten da bailaran eta ekitaldi horien guztien berri ematea ondo ikusten dut. Ea bide onari eusten dion *Asteleheneko Goienkariak*.



**FRANCISCO JAVIER GARAI**  
PSE-EEKO ZINEGOTZIA

Nik uste dut euskaldun jendeak behar duela horrelako produktu bat, bailaran gertatzen den guztiaren berri jasotzeko.

Aste bukaeretan gauza mordo egoten da Debagoienan eta nik uste dut irakurleek erantzungo dutela. *Goienkariaren* pareko harrera ona izango du astelehenekoak ere.



**PEIO GARITANO**  
LOKATZAKO KIDEA

Herrirako eta bailararako garrantzi handiko proiektua da. Kirolean ez ezik, beste arlo batzuetan ere gertatzen diren gauzak jasotzea ondo ikusten dut eta astekari interesgarria izango da, duda barik.

Irakurleen aldetik gauza ederra litzateke herritarrok erantzun ona ematea *Asteleheneko Goienkariari*.



**OLATZ OLASO**  
JARDUNEO PRESIDENTEA

Oso positiboa ikusten dut, astelehenean, beste egun batez, aukera izango dugulako euskarazko prentsa irakurtzeko eta bailara berriak jasotzeko.

Abenduan kaleratutako zero zenbakiak oso inpresio ona eman zidan. Pertsonalki, kulturako berriak oso ondo landuta zirela iruditu zitzaidan.



**JOSE MARI LARRAÑAGA**  
HEZKUNTZA SAILEKOA

Ni beti izan naiz aurrera begiratzearen aldekoa eta oso inportantea da irteten diren aukerak aprobetxatzea. Aste bukaeretan gauza pilo bat sortzen dira herrietan eta herri prentsari dagokionez badago esparru berri bat joratzeko. Ea apustu ausart honek erantzun ona jasotzen duen.



## HOGEI LAGUN GITARRA IKASTAROAN

**H**amabi lagun ari dira Jardun Elkarteak antolatutako gitarra ikastaroan. Eskolak otsailaren 6an hasi zituzten, eta apirilaren 2ra bitarteko egubakoitzetan elkartuko dira, Arrizuriagan.

Dometx Ucin eta Olaia Ramos dira irakasleak eta beraiekin batera, esan bezala, 12-30 urte bitarteko 20 gaztek dihardute. Jarduneko arduradunen arabera, ikastaroaren helburuak, besteak beste, euskal kantak

ikastea, gazte jendea Jardunera hurbiltzea eta euskal giroa suspertzea dira. Ea gitarra jole bikainak ateratzen diren ikastarotik...



## IÑIGO GALLASTEGI SASOI BETEAN

**S**asoitsu dabil Iñigo Gallastegi *Poti* Bartzelona aldean. Bergara Igeri Elkarteak eman duen igerilaririk onenetakoa izan da Gallastegi, baina orain dela urte dezente laga zion lehiatzeari. Orain, Bartzelonako talde baten berriro entrenatzen hasi da eta emaitza bikainak lortu ditu aspaldian. Joan zen otsailaren 7ko eta 8ko aste bukaeran, master 30 mailan (30-35 urte bitarteko igerilariak biltzen dituen), Kataluniako bi errekor lortu zituen, bizkarreko 50 metroetan eta 50 metro libreetan.



## SILVIA EZPELETA 'DATE EL BOTE'-N

**A**stean zehar Silvia Ezpeleta bergararra ikusi dugu ETB-2ko *Date el bote* saioan. Carlos Soberak aurkezten duen lehiaketan, mutilak nesken kontra lehiatzen dira eta pike sanoa egoten da bi taldeen artean. Mutilak finago aritu dira aste honetan. Hala ere, nesken taldeko bakoitzak 340 inguru eskuratu ditu. Silvia Arrasateko La Merced ikastetxean dabil lanean eta bere bi lankide *Date el boten* egondakoak ziren aurretik. Haiek animatuta joan zen Silvia Miramongo estudioetara. Esperientzia oso positiboa izan dela eta kamera aurrean gustura ibili dela esan digu bergararrak. Zorionak!!!



MINGAINARITIRAKA



Jose Luis Ruiz

KEROS DENDAKOA

Margolanak eta etxea apaintzeko hainbat pieza saltzen dituzte Kerosen. Markoztatze lanak ere egiten dituzte. 12 urte daramatza Jose Luisek lan horretan. Urretxun eta Bergaran dituzte dendak; Bergarakoa, orain dela urte eta erditik.

Zenbat margolan edo lamina dituzu dendan?

Uf!, ez dakit horri erantzuten; guztira, ehunka margolan eta lamina egongo dira dendan.

Ze estilotako margolanak dituzu gustukoak?

Niri margolan klasikoak gustatzen zaizkit gehien; edozelan ere, jendeak margolan abstraktuak eta modernoak erosten ditu, gehienbat. Horiexek daude boladan.

Zeuk badaukazu margotzeko zaletasunik?

Ez, batere ez; mundu hau asko gustatzen zait, baina, nik neuk ez dut margotzen.

Etxean zenbat koadro dituzu?

Beste edozeinek adina; ez pentsa etxea koadroz beteta dudanik!

Eta logelan zelako koadroak dituzu?

Klasikoak; garai bateko damak agertzen dira margolanetan.

Zure lanean, zer da onena? Eta txarrena?

Eguneroko lana ez dela berdina, egunero ikasten duzula zerbait berria. Txarrena, berriz, batzuetan presaka ibili beharra izaten dugula. Dena dela, orokorrean, oso gustuko dut nire lana.

Pintore gustukoena?

Bat esatearren, Monet.

Kolore bat?

Urdina.

Musika talde bat?

La Oreja de Van Gogh.

Liburu bat?

Stephen King-enak asko gustatzen zaizkit; *Un saco de huesos*, esaterako, asko gustatu zitzaidan.

Film bat?

Ikusi dudan azkena: *El último samurai*.

Asteko egunik onena? Eta txarrena?

Onena, eguena; egubakoitza edo zapatua baino nahiago dut. Txarrena, berriz, martitzena; astelehena baino gogorragoa egiten zait.

Oraintxe bertan loteria tokatuz gero...

Bidaiak egiteko aprobetxatuko nuke; munduko herrialde ugari bisitatuko nituzke.

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Elena Odriozola

PRAGA / 2003ko abendua

**A**benduan, Kontzezinoko zubian, joan ginen lau lagun Pragara. Hiru eguneko zubia zen; ezagun batzuek esan ziguten hiri txikia zela Praga eta nahikoa zela hiru egunekin, hiria ezagutzeko. Baina iruditu zitzaidan egun gutxi zirela dena ondo ikusteko, hango giroa hobeto ezagutzeko, erosketak egiteko...

Oso hiri polita da Praga; alde zaharra eta alde berria, biak dira ederrak.

Hiri turistikoa da, espainiarrak, batez ere, asko ikusi genituen. Hala ere, turismoari dagokionez, ez daude oso prestatuta. Edozein monumentu ikustera joan, eta inon ez du ezer jartzen, ez zer den, ez noizkoa den. Ezer ez. Beste adibide bat: kaleak ez daude batere ondo argiztatuta; dauden monumentuak ere, iluntzen duenean, ilunpean geratzen dira. Guk behin baino gehiagotan komentatu genuen: han monumentu hauek edukiz gero, zeharo argiztatuta egongo liriteke. Judutarrak, esaterako, alde horretatik, hobeto prestatuta zeuden: sinagogetan, museoetan eta erakusketetan, dena bere azalpen eta guzti zuten, hainbat hizkuntzatan. Pixkanaka-pixkanaka, baina, badihardute turismoa garatzen.

Ni asko harritu ninduen gauza bat izan zen txekiarren izaera: oso serioak dira, ezinezkoa zen inor



*“Txekiarrak oso serioak dira, oso hotzak, ezinezkoa zen inor irribarrez ikustea”*

*“Oso hiri turistikoa da, baina ez daude batere ondo prestatuta turismoari begira”*

irribarrez ikustea. Gainera, oso jende hotza iruditu zitzaidan.

Hizkuntzari dagokionez, berriz, ez genuen inolako arazorik izan; jende askok zekien gaztelera, eta baita ingelesez ere. Frantsesez, baina, jende gutxi zekien.

Hiru egun besterik ez genuen, baina ondo aprobetxatu genituen: Pragako gaztelua, udaltea, Carlos zubia... ia hiri osoa ikusi genuen. Baita Pragako Jesus Haurtxo ospetsua ere. Ni, gainera, Santa Marina-koa izanda, baneukan hura ikusteko gogoia.

Judutarren hilerrian ere egon ginen. Bitxia zen ikustea zela zeuzkaten hilarri guztiek gainean papertxo bat harritxo batekin zapalduta. Ez genuen lortu jakiterik zer esanahi zeukan horrek.

Pragako gazteluaren barruan, bestalde, oso polita zen han barruan zegoen auzoa, Urrezko Kaletxoa deritzona. Garai baten, artisauen auzoa izandakoa da hori. Kolorez janzitako auzoa da, etxe txikiz osatua.

Etxe horietan, erakusketa eta denda mordo bat dago. Franz Kafka idazle ospetsuaren jaiotetxea ere hantxe dago, eta ikusi genuen. Egun gutxi izan ziren, baina, oso ondo pasatu genuen.

AINTZANE IRIZAR



Urrezko Kaletxoan, Franz Kafkaren jaiotetxe aurrean, Elena eta bere lagunak.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Urtebetetzeko ospakizunak eta kafetegia

Amillaga 1 Bergara  
Tel.: 943 76 94 52

FUTBOLA

# Kadete mailako neskek ligako bigarren fasera pasa dira onenekin lehiatzeko

Bi partidu jokatu dituzte bergararrek: bata irabazi eta bestea galdu egin dute, baina talde gehienak maila bertsuan daude

I. AGIRREAZALDEGI

Bergara KEko kadete mailako nesken futbol taldeak atsedean hartuko du asteburuan. Lehen fasearen ostean, zortzi taldek dihardute jokoan eta horietako bat da Bergarakoa. Bigarren fase honetan partidu bat galdu eta bestea irabazi egin dute.

Neskak atsedena izango dute asteburuan. Izan ere, gazteen aurka jokatzekoak ziren anaiarteko partidua bertan behera geratu da. Hala ere, Mikel Fernandez Popen taldeko jokalariek gogor dabilta denboraldi honetan.

Lehenengo fasean maila ona erakutsi ostean, bigarreneko sailkatzea lortu zuten eta euren mailako beste zazpi talde onenekin dihardute lehen.

Oraingoz bi partidu baino ez dituzte jokatu eta horietatik bat irabazi eta bestea galdu egin dute. Azken jardunaldian Intxaurren aurka jardun zuten eta emaitza 4 eta 2koa izan zen bergararren aurka. Besteak beste, penalti bat huts egin zuten eta partiduari buelta ematen saiatu baziren ere, ez zuten lortu.



Mikel Fernandez Popek entrenatzen dituen neskek atsedena izango dute asteburu honetan.

## AÑORGA HURRENGO AURKARIA

Mikel Fernandez Popek entrenatzen duen taldeak, hurrengo partidua ere etxetik kanpora jokatuko du, Añorgan, hain zuzen ere, bertako taldearen aurka.

Euskal Herriko talderik onenetarikoak da Añorgakoa. "Partidua zaila izango da, dudarik gabe, baina saiatuz gero eta gure jokoa erakusten badugu, irabazi dezakegu", esan digu Popek.

## KADETEAK BEASAINEN KONTRA

Lehen mailako kadeteek, lagun arteko partidua jokatuko dute Beasainen aurka Agorrosinen, zapatuan. Norgehiagoka 11:30ean hasiko da, eta azken jardun-

dian bezain fin ibiliz gero emaitza ona lortu dezakete David Lopez de Abetxukoren mutilek. Izan ere, 0-3 irabazi zuten Allerruren kontra kanpoan.

Lehen mailako gazteena izango da asteburu honetan Agorrosinen jokatuko den ligako partidu bakarra. Bergararrek Luberrikoak izango dituzte aurre, eta partidua zapatuan izango da arratsaldean, 16:00etan, hain zuzen ere.

Preferente mailakoek eta oheretako mailako gazteak, berriz, kanpoan jokatuko dute, Touring taldearen eta Ordiziaren kontra, hurrenez hurren.

## MAXI GOMEZEKIN IBILITAKOEN AFARIA

Bestalde, 1970eko hamarkadan Bergara KEko Maxi Gomez entrenatzailearekin ibilitakoek afaria egingo dute martxoaren 13an. Maxi Gomezek sei bat urte eman zituen entrenatzaile lanetan, infantil eta gazte mailatan hain zuzen. Horrez gain, herri mailako futbol txapelketak antolatzen ere lan bikaina egin zuen. Afarira joateko interesa dutenek telefono honetara deitu dezakete: 630 62 61 30 (Jose Luis Beitia).

## Ariznoako neskek bikain Arrasateko gimnasia erritmiko txapelketan

I.A.

Gipuzkoako 70 gimnastak hartu zuten parte zapatuan Arrasateko Uarkape pilotalekuan izandako txapelketan. Tartearen ziren Bergarako Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko neskek ere.

Arrasateko Uarkape pilotalekuan goizez eta arratsaldean izan ziren Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketako probak.

Ariznoako neskek hainbat mailatan hartu zuten parte eta baita emaitza onak lortu ere.


Alebinetan, taldekako proba egin zuten Eukene Bastarririk, Jone Larrañagak, Ane Alberdik, Amaia Irastorzak eta Onintza Legorburuk Antzuolako Herri Eskola ordezkatzuz, eta bigarren tokian sailkatu ziren.

## INFANTILAK TALDEAN ETA BAKARKA

B kategoriako infantilak taldean eta bakarka lehiatu ziren. Oihane

Agirrek hirugarren postua eskuratu zuen maila honetan, eta Saioa Ugarteburu, berriz, bosgarren tokian sailkatu zen. Bestalde, Mariaren Lagundia eskolako ordezkari moduan boskote batek jardun zuen taldekako proban. Olaia Gastiain, Itxaso Garmendia, Ane De la Rosa, Ikerne Rodriguez eta Miren Ormazabal irabazle izan ziren.

Benjaminiek lehiaketan parte hartu ez arren, euren erakustaldia eskaini zuten bakarka.



Taldeak eta bakarka jardun zuten Gipuzkoako gimnastek Uarkapen.

# EDEL

## TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## ETXAGI

### JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

## TELEIXA

### BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93



Azken partidua etxetik kanpo irabazi ostean, joko ona egiten ahaleginduko dira bergararrak Sestaoren aurka.

ARTXIBOA

ESKUBALOIA

## Seniorren taldeak Sestaoren kontra jokatuko du bihar Labegaraietan

Bajak direla eta, gazteen ekipoko hainbat jokalarik eurékin jardungo dute

I.A.

Senior mailako taldea izango da asteburu honetan etxean jokatuko duen talde bakarra. Sestaoko ekipoa izango du aurrez aurre, arratsaldeko bostetan Labegaraietako kiroldegian.

Sailkapenean 11. tokian daude bergararrak eta hiru talde dituzte atzetik. Sestaokoa da horietako bat, azken bi postuetan sei punturekin berdinduta baitaude bizkaitarrak.

ERABAKIGARRIA

Partidua, beraz, garrantzitsua izango da seniorrendako. Izan ere, euren mailatik bi edo hiru talde beheragoko kategoriara jaitziko dira denboraldi amaieran, eta sailkapeneko azken postuetatik alde egiteko irabazi egin beharko dute norgehiagoka. Zenbat talde jaitziko diren jakiteko

kontuan hartu behar da goiko mailatik talde euskaldunen bat jaisten den ala ez.

Partidu gogorra izango da Edu Orgaz seniorren entrenatzailearen esanetan. "Sestaoko taldea eta gurea orain gauden mailara elkarrekin igo ginen eta azken denboraldia maila bertsuan jokatuko dugu, biak ala biak mantentzeko nahikoa arazorekin. Hala ere, lehengo astean bezala partidua irabazten saiatuko gara".

Norgehiagoka irabaziz gero, gainera, sailkapenean gora egiteko aukera gehiago izango dute.

*Sestaoren kontrako partidua irabazi egin beharko dute jaitziera postuetatik urruntzeko*

Gainera, datorren astean Egiako taldea izango dute aurkari, sailkapen orokorrean euren aurretik doazena, beraz, zapatuko partidua irabazita Egiakoen parera helduko lirateke (hauek galduz gero) eta baita atzeko postuetatik urrundu ere.

GAZTEEN LAGUNTZA

Seniorrak nahiko denboraldi irregularra egiten dihardute aurten. Lesioak eta bajak direla eta azken hilabetean bezala biharko partiduan ere jokalaria asko faltako dira. "Lehen lerroko jokalaria asko min hartuta daude eta bai erasan eta baita atakan ere euren lana ezinbestekoa da. Horregatik, Sestaoren kontrako partidurako gazteen taldeko jokalarik batzuek jardungo dute gure taldean. Azken partiduan ere hiruk jokatuko zuten eta euren laguntza oso garrantzitsua izango da", esan digu Edu Orgaz seniorren entrenatzaileak.

## Udaberri sariko partiduak Angiozarren jokatuko dira

I.A.

Inauterietako ekitaldiak direla eta Udal Pilotalekuan ezingo da partidurik jokatu. Beraz, Udaberri sarian parte hartzen duten jokalariek zapatuan Angiozarren izango dute hitzordua, 17:00etan.

Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokatuko dituzte zapatu honetan Udaberri Sariko pilota partiduak.

Arratsaldeko bostetan hasita hiru norgehiagoka izango dira bertan.

Lehenengoan, bigarren mailako kadeteek jardungo dute, eta bergararrak Gure-Txeru taldekoak izango dituzte aurrez aurre. Herriko ordezkariak Luis eta Unzueta izango dira.

Jubeniletan bergararrak eta hernaniarrekin neurtuko dira,


eta Bergarako pilotariak Salegi eta Altuna izango dira. Azkenik, Apraiz eta Iñarra seniorrek eskoziarzarren aurka jokatuko dute.

Bestalde, gaur, egubakoitza, kadeteek, jubenilek eta seniorrek Hernanin jokatuko dute bertako taldearen kontra klubaren arteko txapelketan.

DENBORALDI MOTELA

Bergararrak motel dabilta denboraldi honetan. Joan zen jardunaldian partidu guztiak galdu dituzte eta orain artekoetan ere ez dute batere emaitza onik lortu. Kadeteek bazuten aukerarik baina Jon Larrañagaren lesioa dela eta okasioak galdu dituzte.

Beraz, bergararrak gogor jardun beharko dute zapatuan. Izan ere, aurkari gogorak izango dituzte aurrez aurre. Partiduak Angiozarren izan arren, herriko pilotazaleei bertaratzeko dei egin nahi diete.



Kadeteek, gazteek eta seniorrek jardungo dute Arbiaskan.

ARTXIBOA

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA


### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 09:30: Belengua-Mongatxurra. Antolaketa
- 10:30: Canalejas-P.D.S. Mongatxurra
- 11:30: K.Piperrak-Pirulotarrak. FAC
- 12:30: Egurre-FAC. Pirulotarrak
- 18:30: Bedarreta-T. Musakola. Artusamak
- 19:30: Artusamak-Bedarreta. T. Musakola

DOMEKAN, BARRUAN


- 09:30: Txipiron-Etengabe. Fit automocion
- 10:30: Teatek-FIT automocion. Txipiron
- 11:30: S.D.T.N.T.-Dedo Pafarru. Cosa Nostra
- 12:30: Irubide-Cosa Nostra. S.D.T.N.T.
- 16:00: T.M.T-Pagomendi. Kalaveras
- 17:00: T.Musakola-Kalaveras. De Resaka
- 18:00: De Resaka-Argandolas. T. Añiketan
- 19:00: Totten Añiketan-Vervenir. Torrekua
- 20:00: Agirrebeña-Torrekua. Vervenir



**Manufacturas LARRAÑAGA**  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

- Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak
- Polainak: larruzkoak
- Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak
- Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak
- Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak
- Segurtasuneko oinetakoak
- Entzumen-babesa eta begi-babesa
- Soldatzaileendako aurpegirako babesa
- Maskarak
- Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak
- Hotzaren kontrako parkak
- PVCzko trajeak
- Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4)
- Lanerako arropa
- Hotzaren kontrako txalekoak
- Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

ANTZERKIA/ Emanaldia Zabalotegiko aretoan izango da, hilaren 27an, 22:30ean

## 'Divinas' estreinatuko du Oihularik egubakoitzean

EDU MENDIBIL

Oihulari Klown taldeak *Divinas* antzezlan estreinatuko du datorren egubakoitzean, hilaren 27an, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Oihularik Ama Birjina, Maria Magdalena eta Jesukristo terapian jarriko ditu bere azken muntaia horretan.

Laura Lopez, Virginia Imaz eta Txefo Rodriguez aktoreak ditugu Maria Magdalena, Ama Birjina eta Jesukristoren paperetan, hurrenez hurren. Antza, beraien bizimodua ez da jendeak uste bezain idilikoa: Ama Birjina errudun sentitzen da, Maria Magdalena estresatuta bizi da eta Jesukristok beldurra dio konpromisoari. Horregatik terapiara jo beharko dute, pertsona dibino anonimoen taldera hain zuzen, eta, hortik abiatuta, umorezko antzezlan egin nahi izan dute Oihularikoek.

Virginia Imazek zera adierazi digu: "Erligioan sinesten duen jendearekin errespetua izaten saiatu gara. Gertatzen da gure bizitzan badaudela arketipo handi batzuk, amatasunarena tartean, eta horiei buelta batzuk eman nahi izan dizkiogu, gure buruari barre egiteko asmoarekin, besterik ez. Barre egitea terapia ona da beti". Imazek berak egin du gidoia eta bera da laneko zuzendaria ere. Azken lana dibertimendu hutsa dela esan digu taldeko zuzendariak.

*Divinas* lanak ordubete eta 20 minutu inguruko iraupena dauka. Musika Txefo Rodriguez aktoreak egin du eta eszenografiak Mikel Ibartzabal bergararra arduratu da. Sarrerak sei eurotan salgai jarriko dira egunean bertan Zabalotegiko leihatilan. Bergarako estreinaldiaren ondoren,



Laura Lopez, Txefo Rodriguez eta Virginia Imaz Oihulariko aktoreak.

### Ama Birjina, Jesukristo eta Maria Magdalena terapian jarriko ditu Oihularik

Barañainen (martxoaren 2an) eta Arrasaten (martxoaren 14an) aurkeztuko dute *Divinas*.

#### IBILBIDE LUZEA

Ibilbide luzea egin du Oihularik antzerkigintzan. Taldeak 15 urte

inguru daramatza lanean, eta, bere azken lanen artean, *Rekoloklown*, *Zai beti zai*, *Otiacih* eta *Alfonbra magikoa* nabarmen daitezke.

#### IPUIN KONTAKETA EGUENEAN POL-POLEN

Oihulariko kideek ipuin kontaketa ere jorratzen dute. Eguenean, hilaren 26an, Virginia Imazek eta Txefo Rodriguezek *Más que palabras* izenburuko saioa eskainiko dute Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Taldearen inguruko informazio gehiago jasotzeko ondoko webgunera jo dezakezue: [www.oihulariklown.com](http://www.oihulariklown.com).

## Ipuin, komiki, bertso eta antzerki lehiaketa deitu dute

E.M.

Udaleko Euskara Zerbitzuak deitutako Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketan, ipuin, bertso, komiki eta antzerkirako tartea izango da. Lanak entregatzeko epea apirilaren 21era arte dago zabalik.

Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek parte hartu ahal izango du lehiaketan. Generoak honako hauek izango dira: ipuina, bertsoak, komiki-tira eta ipuin-kontakteta eta antzerkia. Azken honetan taldeek hartuko

dute parte, lanak bideo-zintan aurkeztu beharko dira eta onenak GOITBk emitituko ditu.

Genero bakoitzeko hainbat talde bereiztuko dituzte adinaren arabera. Ipuinen kasuan, esaterako, bost talde izango dira: 1996-97an jaiotakoak (lanen luzera 0-2 orrialde artekoa); 1994-95ean jaiotakoak (0-2 orrialde); 1992-93an jaiotakoak (0-2 orrialde); 1989-91 bitartean jaiotakoena (2-5 orrialde) eta, azkenik, 1988an edo aurretik jaiotakoena (3-10 orrialde). Bertsoei dagokienez, hiru talde izango dira: 1992-93an jaiotakoena (3-6 bertso), 1989-91 bitar-

tekoena (4-8 bertso) eta 1988an edo aurretik jaiotakoena (8-12 bertso). Komiki-tira lehiaketan ere hiru multzo horiek bereiztuko dituzte. Genero bakoitzeko lan onenak sariak jasoko dituzte.

#### LANAK, APIRILAREN 21ERAKO

Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 21ean bukatuko da eta sariak ekainaren 5ean banatuko dituzte, Zabalotegin. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan jasoko dira. Lehiaketaren inguruko argibide gehiago jasotzeko bertara edo 943 77 91 66 telefono zenbakira jo dezakezue.

## LABUR

### Komertzio txikiaren inguruan pintura lehiaketa deitu du Bedelkar elkarteak

Bedelkar herriko dendarien elkarteak pintura lehiaketa deitu du. Partaideek komertzio txikiaren inguruko lanak aurkeztu beharko dituzte eta adinaren arabera bi talde bereiztuko dituzte: 18 urtetik gorakoena eta gazteena, 18 urtetik azpikoena. Lehen taldearen kasuan irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du eta gazte taldearen onenak, berriz, 300 euro eskuratuko ditu. Olio, akuarela, akriliko edo teknika mistoa espresio teknikak erabili ahal izango dira.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 1etik 30era izango da zabalik kultur etxean eta aurkeztutako lan onenekin erakusketa egingo da maiatzaren 3tik 9ra.

### 'The filth & the fury' filmaren emanaldia domeka arratsaldean gaztetxean

Bergarako gaztetxeak antolatutako zinema emanaldien barruan, domekan, hilaren 22an, *The filth & the fury* filma eskainiko da 19:00etan. Aipatutako filma Sex Pistols musika taldearen inguruko dokumentala da. Sex Pistols Britainia Handiko taldeak zere-san ugari eman zuen 1970eko hamarkadan eta taldearen gorabeherak azaltzen dira filmean.

Gaztetxearen zine zikloarekin jarraituz, martxoan beste bi emanaldi izango dira: *Kamchatka*, martxoaren 7an, eta *Missing (Desaparecido)*, martxoaren 14an.

### Juanjo Altunaren margo erakusketa Durango eta Bingen De Pedrorena Gasteizen


Juanjo Altuna Akizu margolariak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Durangoko Eguda galerian (Alluitz 2, behe). Erakusketa apirilaren 7ra arte izango da zabalik, aste barruan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era dago zabalik Eguda galeria.

Bestalde, Bingen De Pedrok bere lanak ikusgai ditu Gasteizko Felisa Navarro galerian (Cercas Bajas 2). Erakusketa otsailaren 26ra arte izango da zabalik, astelehenetik zapatara, 17:00etatik 21:00etara.

### Jon Plazaolaren 'Majia ja ja!!!' antzezlan gaur eta Ttukun taldea bihar gaztetxean

Aratuste jaiak direla eta, Bergarako gaztetxeak bi ekitaldi antolatuko ditu astebururako: batetik, Jon Plazaolaren *Majia ja ja!!!* antzezlan ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean hasita. Jasotako informazioaren arabera, Jon Plazaolak antzeztutako duen lanean umorea da nagusi.

Bestalde, bihar, Gasteizko Ttukun taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean, 22:30etik aurrera. Aratuste-zapatua girotzeko ekarriko dute Ttukun taldea gaztetxeok. Hainbat estilo jorratzen dituen taldea da Ttukun. Zapatuko kontzerturako sarrerak doakoak izango da.



Ipuinen kasuan, bost talde bereiztuko dituzte partaideen adinaren arabera.



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 9. alia

## IEPA LAGUNOK! URREZKO ARAUAK

Aratustiak!!! Neri asko gustatzen jat aratustiak. Eta torradak? Ummm, zelako onak! Zuei gustau jatzuen? Bihar pottokok behi mozorrotuko gara. Eta zuek? Zela mozorrotu bihar dozue? Pirata, paillazo edota agure jantziko zarete? Bueno, ondo pasau eta kalian ikusten banauzue agurtu, bai?



Gu behi mozorrotuko gara. ~~Gu mozorrotu bihar ga de vaca.~~  
Bularraldian jo zaittu pelotiak. ~~Bularraldian jo detsu pelotiak.~~

### JOLASA

Ezetz jo!

Globo bat puztu eta jolasarekin hasiko gara. Etxian be jolasteko modukua da. Globua eskuan dogula aitta, ama, arrebía edo anaia 3 metrotara ipini eta globuarekin zuk esaten dozun tokixan jutzen saiatu bihar dozu.

Gorputz atal bakoitzak puntuaziño desberdiña edukiko dau.

Buruak:	puntu bat
Gorputz enborrak (bularraldia, sabelaldia...):	2 puntu
Hankak (bernak, iztarrak...):	3 puntu
Besuek (eskuak barne):	4 puntu
Ipurdiak:	5 puntu



Hasteko, globuarekin nun joko dozun esango dozu. Esate baterako "besuan joko zaittut". Eta besuan jota lau puntu lortuko dittuzu. Txandaka egingo dira jaurtiketak eta 25 puntu lortzen dittuana izango da irabazlia.

Zorroztu punterixia!!!!

## IGARKIZUNA

Tipitaki tapataki zeiniek daki, zeiniek daki, puntan punta bi atzian zulo bi.



Erantzuna: gonatzak edo artatzak

## HOROSKOPUA



### capricornio

Sorgin mozorrotu eta kalera erratzarekin irteten bazara, hegan egitteko aukeria izango dozu.



### leo

Zorionekua zu, txokolategi betetako saski bat erregalauko detsue.



### cancer

Herriko ume danak barrez ikusi nahi badittuzu, paillazo mozorrotu zaittez.



### aries

Arrantzale mozorrotu eta ia aratuste martitzenian erre bihar dan sardiña arrantzatzia lortzen dozun.



### libra

Babarrunak jaten badittuzu, egun osua puzkarrak botatzen pasauko dozu.



### piscis

Oindio ez dakizula zela mozorrotu? Juan zaittez amamaren armairura eta egun batez amama bihurtuko zara.



### virgo

Ez ezazu horrenbeste negar egin, errekiak be gaiñezka egingo dau eta.



### geminis

Gustoko dozu Shin Txan? Esan gurasuei ultraheroiaren mozorrua gertatzen laguntzeko eta izan zaittez egun batez zure herriko Shin Txan.



### aquarius

Ume gaizto mozorrotuko zarella? Ez daukazu horretarako biharrik, bestela be bihurri aurpegixa daukazu eta.



### scorpio

Oindio ez dozula zure ametsetako altxorra topau? Ba, pirata jantzita irten eta uste ez dozun leku batian topauko dozu.



### sagitario

Kontuz sukaldeko iturrirra zabalik lagatziarekin, etxera bueltautakuan igerixan egitteko moduan izango zara eta.



### tauro

Zenbat gizur esan dittuzu azkenaldi honetan? Zelako sudurra! Jantzi txapela eta galtza motzak eta pinotxo mozorrotu zeinke.

## AURREKO ASTEKO IRABAZLIA

JUAN ZAN ASTEKO LEHIAKETAKO ERANTZUN ZUZENAK:

1. Mozorrua
2. Sardiña
3. Hamabi
4. Donostia
5. Tolosa
6. Deba
7. Torradak
8. Otsailla
9. San Martin



Julen Errasti Galdona 6urte  
Arantzadi ikastetxea

E, TXO!

**MOZORRO DESFILEA, TORRADAK ETA 'ALTXOR BILA'**

Jarduneko Txapligu taldekoek bihar, zapatua, batzeko ordutegi berezia izango dute. 16:00etatik 17:30era mozorro desfilea egingo dute. Bestalde, domeka torradak gertatzeko aprobetxatuko dute. Txiskrilabikoek 16:00etatik 18:00etara *Altxor bila* jardungo dute, eta horretarako, Udal Euskaltegiko lokaletan elkartuko dira. Gainera, Jardunek gogorarazi nahi du oraindik badagoela taldeko kide izateko aukera.

**ALKOHOL KONTSUMOARI AURRE EGITEKO PLANA**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak adingabeen gehiegizko alkohol kontsumoari lotutako arazoei aurre egiteko plana aurkeztu du. Madrazo sailburuaren esanetan, "alkohola kontsumitzen gero eta lehenago hasten dira gazteak. Ez da arraroa 13 eta 14 urte bitarteko gazteak edaten ikustea". Egitasmoaren helburua gazteek alkoholik edan gabe bizitzaz gozatzeko aukera izatea da. Eibar, Elgoibar, Oñati eta Gasteiz dira inguruan plana abian jarriko duten herriak.

**EHU-KO IKASLEENDAKO EGOITZA BERRIA**

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleendako beste egoitza bat zabalduko dute Bilbon. Hurrengo ikasturterako abian izango da 216 ikaslerendako lekua duen sei solairuko eraikina. Bakarkako 196 gela, birendako hamar eta ezinduendako bost egongo dira. Gimnasioa, kafetegia eta ikasteko gelak ere izango ditu Bilbo Zaharreko egoitzak.

**GUREGAIK/ 'GAZTENews' ALDIZKARIA**

**Gazte-txartelaren jabe direnendako aldizkaria**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Aldizkari bat kaleratu du Eusko Jaurlaritzak Gazte-txartela duten gazteendako.**

**Gaztenews aldizkariak txartelak eskaintzen dituen abantaileri buruzko informazioa emango du.**


Urtarrilaren amaieran argitaratu zuten Gazte-txartelaren titularrei zuzendutako aldizkariaren lehenengo zenbakia. Horren helburua da gazteei eskaintzea txartelak hainbat alorretan dituen abantaileri eta deskontuei buruzko informazioa. Izan ere, txartelak eskaintzen dituen aukerak erabiltzaileek dakizkitenak baino zabalagoak dira.

**DOAKOIA ETA ESPEZIALIZATUA**

Aldizkaria doan banatuko da, hiru hilabete behin, unibertsitate, institutu eta gazte-etxeetan.

Zenbaki bakoitzak eduki berezia izango du urtaroaren arabera. Lehenak, negukoakenez, elurrari buruzko atal berezi bat du. Espainiako eta Europako eski-estazioen eta kirol horren inguruko berri emango diete irakurleei. Baita deskontu eta abantailen gozatzeko pistak ere.

Horrez gainera, hainbat informazio eskainiko du: bekak, estreinaldiak, ikasketa-bidaia... Eskaintza berezietan buruzko atal bat ere izango du, bidaia, optika, gimnasio, arropa-denda, eta abarretako deskontuen berri emango duena.



Lehen zenbakiak, negukoak, elurrari eta eskiari buruzko atal berezia izango du.

**LOTSABARIK/ Eli Conde**

**"Bergarako jaiak luzatu egingo nituzke"**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Lo egitea omen da Eliren zaletasunetako bat, baina gure galderei erantzuteko esna etorri da. Erraz gorritzen dela esan digu; hala ere, lasai asko jardun du gurekin berbetan, eta ez diogu kolorerik atera.**

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?  
Herriko jaiak luzatuko nituzke, segituan pasatzen baitira.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?  
Lagunen marrazkiak ditut.
- Telebistako saioren gorrota-garriena? Eta gustukoena?  
*Aqui hay tomate* saioko aur-

kezleak gorroto ditut. Bestalde, *Los Serrano* telesaila gustuko dut, protagonista guapoa delako.

- Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?  
Isabel Pantoja eta bere bikotekidea gehiegi agertzen dira telebistan, eta higuina ematen dute. *Crónicas marcianas* saioko Javier Sarda barregarria iruditzen zait.
- Zerk amorratzen zaitu?  
Gauza askok, baina batez ere goizetan esnatzeak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?  
Momentu onetan zein txarretan nire ondoan egotea.
- Zer ematen diozu lehentasuna bizitzan?  
Familiari. Senideek ez dida-


telako sekula bizkarrik emango.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?  
Bertutea, ingurukoek nirekin barre egiten dutela; akatsa, berriz, segituan gorritzen naizela.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?  
Jaietan. Triste den arren, pare bat trago hartuta, denok zabalagoak gara.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?  
Umoretsua eta bihotz onekoa.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?  
Madaro lagunarekin, Galiziara.
- Etorkizunerako amets bat?  
Benetako lagunekin dudan harremana ez galtzea.




ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko 2. maila • ZALETASUNAK: Lo egitea • LIBURU BAT: Jorge Bucayren *Déjame que te cuente* • FILM BAT: *Días de futbol* • MUSIKA TALDEA: Brian Adams • KIROL TALDEA: Real

**TIRABIRAKA/ Peru Azkarate**



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze urtetan hasi ziren San Pedro eliza eraikitzen: 1427an, 1527an ala 1627an?

GALDEDEBALDE

1.

Zein talde ekarriko du udalak Aratuste-martitzena alaitzeko?

- A/ Samba Carioca.
- B/ Sambodromo Show.
- C/ Rio Samba Show.

2.


Nor da Goiena Komunikazio Zerbitzueta presidentea?

- A/ Inazio Arregi.
- B/ Estepan Plazaola.
- C/ Mikel Irizar.

3.

Zein da Oihulari Klownek hilaren 27an estreinatuko duen lanaren izenburua?

- A/ Rekoloklown.
- B/ Divinas.
- C/ Alfonbra magikoa.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AMAIA AZPEITIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Amaia! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Oxirondo plazan; eskumakoa Altzasu elkartearen. / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Flor leungarria

Hiru litro.

2,39 €

398 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Simon Arrieta (1)

ERREDAKZIOA

Domekan, hilaren 15ean, 35 urte bete ziren Simon Arrieta hil zela. Bergarako margolaririk handienetakoa eta margolari askoren maisu izan zen. 1915ean jaio zen, eta Eustakio Agirreolearen estudioan hasi zen margotzen. Valentin Zubiaurrek Madrilen zuen estudioa askotan joaten zen, eta Ignacio Zuloaga eibartarrak hitz ederrak esan zituen Arrietaren lanaren gainean.

Mallorcan soldadutza egiten zebilela, Palmako Arte Ederretako Zirkuluak antolatutako Udaberriko Lehen Erakusketako ohorezko aipamena lortu zuen. Bergarara itzuli zenean, Gipuzkoako Artista Berrien XII. Sariketa irabazi zuen.

Bilboko Eskulangintza Galerian Arrietaren 24 mihise izan ziren ikusgai 1945ean. Gehienak erretratuak ziren, eta kritikariek maisulantzatzat jo zituzten. Carlos Riberak zera idatzi zuen Donostiako Udal Aretoan egindako erakusketari buruz: "Arrieta balio handiko artista dugu; irizpide sendoak eta teknika aditua dituena. Baina badu ezaugarri garrantzitsuago bat: nortasun izugarri berezia, ezta baina peto-pettoa".

*Domekan, otsailaren 15ean, 35 urte bete ziren Simon Arrieta margolaria hil zela*



ARGAZKILARIA



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26



ETXE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
943 76 00 55

**Ganbara**  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel. 943 76 55 75

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-oso ahaztu izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA  
**Eider Monkaiola**  
Otsailaren 21ean, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Ibon, Julen eta Ainhize.



BERGARA  
**Ane Agiriano**  
Otsailaren 15ean, 11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ander Kerexeta**  
Otsailaren 26an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Denok eta Paki.



BERGARA  
**Yerkam Tena**  
Otsailaren 18an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Nora Garcia**  
Otsailaren 22an, 3 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak  
eta Omer anaia bereziki.



BERGARA  
**Jone Agirrezabal**  
Otsailaren 19an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Garazi, Aitor eta gurasoak.



BERGARA  
**Uxue Agiriano**  
Otsailaren 23an, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Xabier Labaka**  
Otsailaren 24an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Andrea Gonzalez**  
Otsailaren 20an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Aitor De Benito**  
Otsailaren 24an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.




BERGARA  
**Elena Egino**  
Otsailaren 17an, 12 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



BERGARA  
**Iosu Elizburu**  
Otsailaren 20an, 3 urte.  
Zorionak! Etxekoak eta  
bereziki anaia Iker.



BERGARA  
**Izaskun**  
Otsailaren 18an, 50 urte.  
Zorionak! Bartzelonatik  
Nuria Bayarri, Quim Sabatek.




BERGARA  
**Aitor Elizburu**  
Otsailaren 15an, 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Laiene Mendibil**  
Otsailaren 22an, 20 urte.  
Zorionak! Etxekoak eta  
bereziki Higitoren partez.



BERGARA  
**Maria Jesus Valle**  
Otsailaren 20an, 36 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Xabi Arzelus**  
Otsailaren 25ean, 1 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta berezi Maddi.



BERGARA  
**Amaia Etxeberriarteun**  
Otsailaren 22an, 27 urte.  
Zorionak! Etxekoak, Asier  
eta berezi Mikel.



ELGETA  
**Iker Markiegi**  
Otsailaren 22ean, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA

# Dixula

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tf. 943 76 44 95





## SARRERA DOAN

Aste bukaerako plana zabal-zabalik

### Zozketa

Bi lagunendako afaria  
Diskoak  
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93  
UTZI MEZUA!

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

SARRERA DOAN  
Laguntzaileak:  
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili

**Eguenetan,**  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Amagoia Lasagabaster**

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko otsailaren 20a / 190. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Erantzukizunari buruzko programa, gurasoendako

AINTZANE IRIZAR

Hamabost bat gurasok dihardute Herri Ikastetxean, familian erantzukizunak banatu eta lankidetzaz sustatzeko programa baten. Euskal Herriko Unibertsitateak jarri du abian programa hori. Antzuolaren kasuan, Herri Ikastetxearen eta Pausokaren laguntzarekin.

Orain dela aste batzuetatik hona, martitzeneko elkartzen dira herriko hamabost bat guraso, erantzukizunaren gaineko programa horretan parte hartzeko. Hamar martitzenetan elkartuko dira, eta bi orduko saioak izango dituzte.

Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat irakaslek egindako ikerketa baten ondorioz sortu zen programa hori. Etxeko, elkarbizitzako, erantzukizunaren eta lankidetzaren gaineko ikerketa egin zuten irakasleok, eta horren ondorioz sortu zuten orain abian dagoen programa.

Martitzeneko, hainbat gai lantzen dituzte gurasoek, adituen laguntzarekin: familiarterko lana, seme-alaben parte-hartzea etxeko lanetan eta bizitzan, komunikazioa familian, autoritatea eta diziplina, familiako gatazkak...



ARTXIBOA

Seme-alaben eta gurasoen erantzukizunaren gaineko gaiak aztertzen dituzte.

### PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa horrek hainbat helburu zehazten ditu: etxeko lanak banatzea, parte-hartzea eta lankidetzaz zelakoak diren aztertu eta horiek hobetzeko estrategiak

ikastea eta lantzea; seme-alaben motibazioa suspertzeko prozedurak ikastea; gurasoen jarraitza eta komunikazio trebetasunak hobetzea, arazoei eta gatazkei aurre egiten ikastea...

## Gurasoen iritziak programaren gainean



**YOLANDA MINER**  
ETXEKOANDREA

Gogo handiz hasi naiz programa honetan. Dena dela, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoei zuzenduta dago, batez ere. Etxean lan egiten dugun gurasoen gaineko ikuspegia sumatu dut faltan. Hala eta guztiz ere, programa interesgarria iruditzen zait.



**MIRARI LAMARIANO**  
LANGILEA

Atsedean hartu, gauza berriak ikasi eta familia osoarendako onuragarria izango delakoan eman nuen izena programa honetan parte hartzeko. Gustura nabil. Nik neuk ume txikiak ditut oraindik, baina hemen ikasitakoa oso ondo etorriko zaidala uste dut.



**KARMELO MUÑOZ**  
LANGILEA

Aita bezala, nire ardura dela uste dudalako eman nuen izena. Gustura nabil. Gainera, irakaslea gizonetzkoa izanda, gizonetzko sentimenduei ere garrantzia ematen die. Hura ere asko dabil jartzen bere aldetik, eta askotan, identifikatuta sentitzen naiz harekin.

## LABUR

### Sagardotegira irteera antolatu du Gazte Asanbladak datorren martxoaren 27rako

Sagardo denboraldia aurrera doa eta Antzuolako Gazte Asanbladak ere sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 27rako, zapea. Ekitaldi horretan parte hartu nahi dutenek etzira arte, domika, dute izena emateko. Mox eta Larrea tabernetan, hain zuzen ere, jarri dituzte izena emateko orriak Antzuolako Gazte Asanbladako kideek.

### Pilar Etxaniz antzuolarra, Aralar-Zutik koalizioko hautagaia Kongresurako

Martxo hauteskundeetan, Aralar-Zutik koalizioko Gipuzkoako zerrendetan, bigarren tokian, aurkeztuko da Pilar Etxaniz, Kongresurako. ZUTIKeko Batzorde Nazionalako eta Emakumeen Talde Nazionalako kide da Pilar. Baita Saharako Lagunen Elkartearen eta Mugen Gainetik gobernu kanpoko erakundeko kide ere. Herrian, hala ere, ikastetxeko zuzendaria delako da ezagunagoa.



### Txorikua etxea botatzen dihardute

Astelehen goizean hasi ziren Kalegoiko Txorikua etxea botatzen. Etxea eraisteko lanok astelehenerako amaitzea espero dute Udaleko arduradunek; Sagasti eta Kalegoi lotuko dituen errepidea egokitzeko, berriz, beste astebete behar izango dute hori bai, eguraldiak laguntzen badu.

Gauzak horrela, pare bat aste barru, dezente aldatuko da herri barruko zirkulazioa; izan ere, alde zaharretik Sagastirako lotunea egingo dute Txorikua etxea eraitsitakoan; oraingoz, behin-behineko errepidea egingo dute hantxe./A.I.

# Aratusteeek Txarri dantza ekarriko digute aurten

AINZANE IRIZAR

Etzi, domeka, ospatuko ditugu Aratusteeek herrian. Goizeko hamarretan hasiko dituzte ekitaldiak; eguerdian, Oinarin dantza taldeak antolatuta, Txarri dantza egingo dute hainbat herritarrek, plazan. Sorgin dantzarik ere, noski, ez da falta izango.

Aurten, Arrasateko Txarri dantza aukeratu dute Oinarin dantza taldekoek Aratusteeek ospatzeko. Arrasatearrek Santamas jaietan egiten dute dantza hori. Hainbat herritarrek parte hartuko du ekitaldi horretan. Txarri dantzarekin batera, urteroko moduan, Sorgin dantza ere egingo du mutil talde batek.

Ospakizunak 10:00etan hasiko dituzte. Ordu horretan, kale-



Domekan, Herriko Plazan, ikusi ahal izango ditugu Aratusteeetako dantzak, 12:30ean.

jira hasiko dute dantzariak, hartzak, tximinoak eta animalia-hezitzaileak, txistulari taldearen

laguntzarekin. Ekitaldi nagusia, berriz, 12:30ean izango da, Herriko Plazan.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Aratusteeek direla eta, oraingo asteburuan ez dute partidurik jokatu herriko futbol taldeek.

#### PILOTA

Otsailak 21 (Udaberri Saria)  
17:00: Olalde-Mundarro (Kadeteak)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Antzuola 3 Idiazabal 3 (2. erreg.)  
Eibartarrak 3 Antzuola 2 (Kadeteak)  
Antzuola 0 Almen 1 (Neskek)

#### PILOTA

Escolartekoa  
Eskoriatza-Olalde (Infantilak) . . . 18-12  
Udaberri Saria  
Golerri-Olalde (Kadeteak) . . . . . 12-22  
Andazpe-Olalde (Nag. eskuz) . . . 22-10  
Landare-Olalde (Nag. paletaz) . . . 9-35



### Antzuolako taldeen web orriak

Antzuolako Gazte Asanbladak eta Antzuolako Askatasunak euren web orriak dituzte Interneten. [www.latako.com](http://www.latako.com) webgunearen barruan daude bi talde horien orriak. Besteak beste, talde horiek antolatutako ekitaldiak, argazkiak eta abar aurkituko ditugu orrialde horietan. Horretaz gain, Bergarako eta Debagoieneko beste talde eta zerbitzu batzuen gaineko informazioa ere badago webgune horretan. /A.I.

## LABUR



### Begoña Egaña ETB2ko saio baten ikusiko dugu

Martxoaren 7tik aurrera, ETB2ko *La flecha amarilla* lehiaketan parte hartuko du Begoña Egaña antzuelarrak. Hamabi lehiakidek hartuko dute parte lehiaketa horretan, eta Santiago-bidea bidea egingo dute.

Oraingo astean bertan, astelehenean, jakin zuen Begoñak bera izango dela hamabi lehiakideetako bat. Eguaztenean, berriz, irudi batzuz hartzera etorri ziren Antzuelara, lehiaketarako. Zera azaldu zigun Begoñak: "Bi aldiz pentsatu gabe aurkeztu nintzen lehiaketarako, eta *casting* bat zer den ikusteko gogoia ere baneukan".

### Pello Zabalen hitzaldia izango dugu Olanen etxean, datorren asteko eguenean

Datorren eguenean, hilak 26, Pello Zabala izango dugu herrian. *Klimatologia eta tenporak* hitzaldia egingo du, Olanen etxean, 18:00etan. Euskaraz eta gaztelaniaz egingo du berbaldea. Gizon politafetikoa dugu Pello: meteorologian aditua, Arantzazuko fraidea eta musikari aditua da, besteak beste.

Jende askok egiten dio kasu Pello Zabalak egunero egiten duen eguraldi iragarpenari; baita tenporen gainean ematen dituen azalpenei ere. Eguenean, horren guztiorren gaineko azalpenak entzun eta, nahi izanez gero, galderak egiteko aukera egongo da Olanen etxean.

### Eski irteera antolatu du Arrolak martxoko lehen astebururako, Candanchura

Aurten ere eski irteera antolatu du Arrola mendi elkarteak. Martxoaren 6tik 7ra egingo dute eski irteera hori. Candanchura joango dira, eta aterpetxe baten egongo dira, El Aguila aterpetxean, hain zuzen ere. Martxoaren 6an, zapatua, irtengo dira, 05:30ean, eta domeka iluntzean itzuliko dira. Zapatuan bertan, iritsi eta eskia ztera joango dira.

### Gorringo taldearen ipuin kontaketa saioa egongo da bihar, zapatua, liburutegian

Udal Liburutegiak antolatuta, ipuin kontaketa saioa egongo da bihar, zapatua, liburutegian bertan. 18:00etan hasiko da saioa, eta Gorringo taldekoek *Antonino Apreta* ipuina kontatuko dute.

Gaur, egubakoitz, bestalde, Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute umek, 17:00etan, herriko Udal Pilotalekuan.

### Bidezko merkataritzako produktuak jarriko dituzte salgai Herriko Plazan, domekan

Etzi, domeka, bidezko merkataritzako produktuak salgai jarriko dituzte Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeko kideek. Aratusteeetako ekitaldiekin bat egingo dute, 12:00etatik 14:00etara jarriko dute saltokia.

Harreman Gobenuz Kanpoko Erakundeak bidezko merkataritza bultzatzeko Arrasateko Maxi Eroskin denda bat dauka. Handik ekarriko dituzte produktuak Anelkarreko kideek, domekan saldu ahal izateko. Denetik egongo da: jakiak, artisautzako produktuak, dekoraziokoak, arropak...



Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

LEKY-BERRI  
MERENDEROA

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# Goibekokale

ELGETA./ Barikua / 2004eko otsailaren 20a / 174. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Azken udal hauteskundeetan baino bi herritar gutxiago izango dira hautesleen erroldan.

## Martxoan, 841 elgetarrek botoa emateko aukera

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Hautesle-errolda jendaurrean ipini eta zuzenketak egiteko epea bete da dagoeneko. Hala, hauteskundeetan botoa eman ahal izango duten herritarrek zenbat diren zehaztu dute: 841. Gainera, egun horretan hauteskunde-mahaian jardungo duten aukeratu dituzte.**

Udaleko erroldaren arabera, 841 elgetarrek dute martxoaren 14ko hauteskundeetan botoa emateko aukera. Horiek dira, hain zuzen ere, Elgetako udaletxean egongo den hauteskunde-mahaia bakarrena gutun-azala esku artean dutela joan daitezkeenak.

Bestalde, egun horretan boto-paperak jasotzen mahaian jardungo duten kideak zein izango diren ere zehaztu zuten azken udalbatzarrean.

Azken hauteskundeetan, joan zen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan, Elgetako hautesle errolda 843 lagunekoa zen, eta oraingoan, bi gutxiago baino ez dira izango Espainiako Gortearako hauteskundeetan botoa emango dutenak.

Udal hauteskundeetan absentzia %18koa izan zen. Hau da, 151 elgetarrek botoa emateari uko egin zioten.

### MAHAIKIDEAK AUKERATUTA

Botoak ematera doazen gutun-azalak zeinek jasoko dituen ere erabaki dute. Azken udalbatzar orokorrean egin zuten hauteskundeetarako mahaikideen izendapena.

Zozketa bidez aukeratu zituzten mahaian jardungo duten mahaiburua eta bi mahaikideak, baita haien ordezkoko ere.

Mahaiburua Joseba Elkoro Arrizabalaga izango da eta haren ordezkokoak Aitziber Askasibar Agirre eta Miren Argi Zeziaga Mendizabal. Javier Telleria Retolatza izendatu dute lehenengo eta

**Joseba Elkoro mahaiburua izango da eta Juan Luis Arantzabal eta Iñigo Susaeta mahaikide**

Juan Luis Arantzabal Sarasketa eta Enrike Elkoro Sarasua haren ordezko. Bigarren mahaikidea Iñigo Susaeta Arriola izango da, eta hark ezin badu, Esther Telleria Retolatza eta Naiara Garrido Markina hautatu dituzte, hurrenez hurren, mahaian jarduteko.

Aukeratu dagoeneko jakinarazi diete euren izenak atera direla zozketan; eta abisua jaso dutenetik astebeteko epea dute Hauteskunde batzordean alegazioak aurkezteko.

### POSTA BIDEZKO BOTOAK

Bestalde, herriko alderdiek elgetarrei jakinarazi nahi diete dagoeneko zabalik dagoela posta bidezko botoa emateko epea. Lana errazteko laguntza emango dute.

EAJkoak Domingo Iturbe kaleko zortzigarren zenbakian izango dira otsailaren 24, 25 eta 26an eta martxoaren 2, 4 eta 5ean, 19:00etatik 20:00etara. EAJkoek inguruko herrietara joateko deialuzatu dute: Bergarako Alkartetxean 11:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era izango dira astelehenetik barikura. Aralarrekoek eta plataformakoek ez dituzte egunak zehaztu.

## HEZKUNTZA

### Irailean zabaldu nahi dute haurtzaindegia

I.A.

Udalak, herriko beharrak asetzeko asmoz, irailean haurtzaindegia zabaltzeko asmoa azaldu du. Horretarako, Haurreskolak partzuergoari, haurtzaindegia Herri Eskolan kokatzeko proposamena egin dio. Abenduaren 18an, partzuergoko arkitektoa kokalekua ikusten izan zen Elgetan, eta txostena arduradunei helarazi ondoren, Udalera oraindik ez da erantzunik iritsi.

Udaleko ordezkariak martxoaren 2an dira elkartzeko partzuergoekin, eta ordurako argibideren bat emango diete espero dute.

Bestalde, proiektuak aurrera egingo duen jakin aurretik, Udal ordezkariak interesa izan dezaketenen herriko gurasoekin elkar-tu eta haurtzaindegia gainera informazioa zabaldu dute. Baita egon daitezkeen zalantzak jasotzeko ere, partzuergoekin izango duten bileran argitzeko asmoz.



Gaur egun, Herri Eskolako ikasle txikiak 2 urtekoen gelakoak dira.

## LABUR

### KZguneko monitorea hamabost egunean behin etorriko da hemendik aurrera

Elgetako kultur etxean dagoen KZgunera, orain artean, astean behin etorri izan da monitorea, eta bi orduko zerbitzua eskaini du. Hala ere, hemendik aurrera hamabost egunean behin egingo du herrira bisita, eguaztenetan. Arratsalde osoa pasako du bertan, eta KZgunean daudenei Interneten inguruan dituzten zalantzak argituko dizkie.

### Aerobik zerbitzua berriz ipiniko dute abian kiroldedian, martxoaren 2an hasita

Hilabete batzuetako etenaren ostean, datorren martxoaren 2an berriz ere ipiniko dute abian aerobik zerbitzua. Izan ere, irakaslea falta zela eta bertan behera laga zituzten eskolak, baina jada nik beste monitorea bat hartu dute, eta hura arduratuko da aerobikeko pausoak elgetarrei irakasteaz. Bi taldek jardungo dute kiroldedian: 16 urtetik gorakoek astelehen eta eguaztenetan 20:00etatik 21:00etara. Beste taldea 12-16 urte bitartekoek osatuko dute.


KIROLA

# Debagoieneko lau t'erdiko pilota txapelketa Elgetan jokatu da martxotik maiatzera

I.A.  
Debagoieneko Udaletako Kirol Zerbitzuek hainbat txapelketa ipini dituzte abian. Elgetan lau t'erdiko bikotekako pilota txapelketa jokatu da martxotik maiatzera bitartean. Gainontzeko herrietan frontenis, pala eta squash txapelketak jokatu dira.

Federatu gabe egon eta esku pilotarako zaletasuna duten debagoiendarrek pilota goxoekin jokatu dute ibarreko lau t'erdiko txapelketa.

Lehenengo fasea liga erakoa izango da eta partiduak Elgetako Udal Pilotalekuan jokatu dira, gehienetan zapatu goizetan. Fase horretan, talde bakoitzetik puntu gehien eskuratzen dituztenak sailkatuko dira final-laurdenetarako, eta ondoren, kanporaketa bidez jokatu da bigarren fasea: final-laurdenak, finalerdiak eta azkenik finala.



Partidu gehienak zapatu goizetan jokatu dira Udal Pilotalekuan.

Bikote bakoitzak ordezkari bat izendatzeko aukera ere izango du. Bestalde, pisuzko arrazoirik gabe partiduren bate-

ra kale egiten duen bikotea txapelketatik kanporatuko dute, eta ordura arteko emaitza guztiak balio gabe geratuko dira.

## Txapelketako lehenengo fasea liga eran jokatu da eta bigarrena kanporaketa bidez

### IAZ ELGETARRAK TXAPELDUN

Debagoieneko txapelketetan apenas jarduten dute elgetarrek. Inoiz pala txapelketan parte hartu dutenak badira eta lau t'erdikoan ere jardun du batek baino gehiagok. Ibili izan direnek, gainera, maila altuan laga dute herria. Izan ere, iaz pilota txapelketan hartu zuen parte David Peñalverrek eta Angel Mari Ibarluzeak osatutako bikoteak, eta baita irabazi ere.

### IBARREKO BESTE TORNEOAK

Pilotako lau t'erdiko txapelketaz gain, beste hainbat torneo ere antolatu dituzte Debagoieneko Kirol Zerbitzuek: Aretxabaletan palakoa, Oñatin squashekoa eta Arrasaten fronteniskoa.

Squash txapelketa abian da, eta palakoan izena emateko azken eguna otsailaren 18a zen. Hala ere, fronteniskorako oraindik badago aukera: otsailaren 26ra bitartean interesatuek Musakolako kiroldegira jo dezakete edo 943 77 16 77 telefonora deitu.

LABUR

## Ttakunpa taldeak kontzertua emango du gaztetxean

Gaur, Inauteri-barikua, kontzertua izango da 23:00etan hasita gaztetxean. Ttakunpa talde zestoarrak jardungo du bertan. Zazpi-zortzi laguneko talde honek, txalaparta, dantza eta tinbalak uztartzen ditu. Perkusio afrikarraren erritmoarekin kontzertura gerturatzeko den jendea dantzara gonbidatuko dute. Bestalde, antolatzaileek jendeari moztrotuta joateko gonbitea egin nahi diete. Izan ere, gaztetxea bera Inauterietarako apropos gertatuko dute.

## Patziku Perurena idazleak hitzaldia egingo du martxoan

Euskal Idazleen Elkartearekin egindako hitzarmen baten bidez, bi hitzaldi antolatu ditu Udaleko Kultura batzordeak. Lehenengo martxoan izango da, eta Patziku Perurena nafarrrak *Koloreen eta zenbakien tratamendua euskal usadioan* izenburupean egingo du hitzaldia. Hurrengo Asier Serrano eibartarrak egingo du, eta *Literaturatik musikara* hitzaldia musikaz lagunduko du. Saioa udazkenean izango da.

## Euskal dantzen emanaldia gaur iluntzean plazan

Inauteriak direla eta, dantza saioa izango da gaur plazan. Azken hilabetean ikasten jardun ostean, propio Inauterietako den dantza bat eta beste zenbait egingo dituzte. Arratsalde eskolako umeak euskal Inauterietako pertsonaien moztrotuekin irtengo dira kalera, eta 19:30ean, helduekin bat eginda ikastaroan jasotakoa herritarren aurrean erakutsiko dute. Elgetarre dantzak ikustera ez ezik dantzan egitera joateko dei ere egin nahi diete.

GARRAIOA

# Taxia, garraioaren arazoa konpontzeko

I.A.  
Aspaldikoa da herritarrek garraio publikoarekin duten arazoa. Zerbitzu gutxi dituzte eskura eta hainbat lekutara ordu zehatzetan joateko auto propioa beste biderik ez dago. Arazoari irtenbideren bat aurkitzeko asmoz lanean hasi dira, eta bat taxi izan daiteke.

Garraio publikoaren erabilerari buruzko galdeketa egin zuten herritarren artean, eta emaitzak jaso ondoren baita Gipuzkoako Foru Aldundira emaitzak helarazi ere. Garraio publikoarekin elgetarrek dituzten arazoak, ordea, ez dira berehala konponduko; beraz, bitartean, eskolara, ospitalera, errehabilitaziora... joateko modu bila dabilta.

Udaletik esan dute arazoaren irtenbideetako bat taxi zerbitzua abian ipintzea izan daitekeela. Horretarako, taxiaren kostua Foru Aldundiaren dirulaguntzen bidez ordaindu beharko litzateke.

### OSPITALERA ETA ERREHABILITAZIORA

Jadanik elkartu dira Taxi Gidarien Elkarteko arduradunekin, eta ordu zehatz batzuetan ibil-

gailu bat herrian izateak zenbateko kostua izango lukeen galde-tu diete. Taxi honek elgetarrak Bergarako errehabilitazio zentrorra eta Eskualde Ospitalera eramango lituzke.

Datuak esku artean dituztela Foru Aldundira joko dute, eta hauen erantzuna baiezkoa bada, ordutegiak zehaztu beharko dira zentroetako arduradunekin.

**Patxi Taberna**

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak  
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

Jesus Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3  
Mo: 656783299 Eibar  
Tel: 943 70 07 19  
**KONPONKETAK  
SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

**ELGETA AUTOAK**

Berraondokoa z/g ELGETA  
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

## ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Lagun koadrila  
Inauterietan  
mozorrotuta

Umorea ezinbestekoa da Inauterietan. Mozorroa jantzi eta hobe izaten da lotsak-eta etxean uztea. Barre egin eta lagunartean giroan murgiltzea, horixe onena. Zapatuan eta martitzenean izango da bai mozorrotzeko aukera Bergaran.

Alboko argazkia orain dela 23 urte ingurukoa da. Sasoi hartan, Inauterietako martitzenean izaten zen giro onena Bergaran. Koadrila dezente mozorrotzen ziren, eta horren lekuko duzue argazkian azaltzen den lagun koadrila. Antza, urte hartan, nor bere aldetik atera zen, kalean elkartu ziren eta Simon Arrieta plazan argazkia atera zuten. Orduan, Roman Larrañaga ibiltzen zen argazkiak ateratzen, Simon Arrietan zuen argazki dendaren ondoan, hain zuzen ere.

Ez duzue lan erraza izango asmatzen zeintzuk diren argazkikoak. Nortzuk ezkututzen dira mozorroen atzean?

Asmatzerik izan ez baduzue, hauek dituzue argazkikoak, ezkerretik



eskumara: Mari Paz Alustiza, Maite Barrena, Izaskun Barrena, Arantza Muruamendiaraz eta Maria Rosa Alustiza.

Ba, horixe, eutsi umoreari eta ondo pasatu Inauterietan!

Argazkia: Maite Barrena.

**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## LAN ESKAINTZA

**Banatzailleak**

- Banatzailleak behar dira astelehen goizetan 'Asteleheneko Goienkaria' banatzeko.
- Norberak motoa edukitzea kontuan hartuko da.
- Derrigorrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea.
- Deitu 943 71 23 91 telefonora.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**

# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.  
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

**ZURE  
ZERBITZURA!!**

### Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobea den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
**San Juan Erreka 33**  
**20570 - Bergara**  
**Tel.: 943 763 642**  
**Faxa: 943 765 425**

MUNDUA MUGITZEN DUGU 